AZALA

LEHEN ALDEA

EDERRAK

Arrainak eder errekan
eder herriko karrikan,
gaua orduko ibilten diren
puta maitekak herrokan.

Eder herriko eliza;
elizan dago Elisa
othoitz egiten senda dadintzat
senhargaiaren penisa

Nire neskaren ederra
behar den legez-nork derra?
nektar da haren sabel ahoak
ixurten duen elderra

JO PILOTA

Saskitik aukeratuta
bote txikiko pilota,
eskuak berotu azkar
ezker paretaren kontra.

Txapa aidean lurrera
eta sakea norentzat?
aurrenekoa gerriko
gorria duenarentzat.

Pilota denak probatu
eta motela nahiago;
mila berrehuni dirua
gorriaren alde dago.

Hiruan bote egin ta
azpi-azpitik sakea
eta bolea eskubiz
txokora errematea.

Sotamanoz ezkerrakin
zartada errebotera,
ta ezker-gantxo neurtua
txokotikan zabalera.

Eskubiz jota txokora
hori txapa-gainekoa!
Gero ezkerrez harrotuz
atzeraino zartakoa.

Kortada bildurgarria
arrimatua ta motza,
ta bi paretetakoa
bizia eta zorrotza.

Hurrengoan zabalera
lau ta erditik dejada,
eta horrenbesterekin
lagunak aski ez al da?

GAUPEAN DAGOEN EUSKADIri

Ilunak artuaz Euskadi doa.
eta uztarpean gaude loturik:
gure aberriak askatasunik
eztu, burdinetan dugu gaixoa.

Zeure gain izaki, Euskal-gogoa
genduen guziok alabearrik:
errien eredu baitzan ederrik
gure artekoen anaitzakoa.

Gain-bera erori ta ondoeza
gaineratu zaizu. Nola igarri
gaitzon iturria? ezta erreza

Askatasunaren euski(a) itzarri
nairik kukurruku ezin ba'neza
ta gaupean dana argitan iarri!

URRE ERREZTUN BAT

Urre erreztun bat badut nik
neure maitiak emanik.

Nun ezdutan hura ikusten
zure erian sarturik,
neure bihotzak eztu izanen
sekulan deskansurik.



BIGARREN ALDEA

EGUNTO BATEZ

Egüntto batez nindaguelarik maitenareki leihuan,
erran üken niriozün hura niala goguan;
ene pena doloretzaz pietate har lezan.

Zure pena doloretzaz pietate badit nik;
ene korpitz trixtiareki eztirot eman plazerik:
zelin promes emanik nago Jinkoari lehenik.»

«Oro eijer oro pollit zü zira, ene maitia;
Zure eskütik nahi nikezü bizi nizano ogia,
eta gero ni nükezü zure zerbütxaria.»

«Eniz, ez ni hain eijerra, nula erraiten beitüzü;
Mündü huntako eijerrena, bertütia lükezü;
hari ogenik egin gabe, otoi, maita nezazü.»

«Baratzian zuiñen eijer jirofleia loratü!
Aspaldian desir niana orai dizüt gogatü;
hura gogatü eztüdano gaiik eztizüt mankatü.»

MAITIAK BILHOA, HOLLI

Maitiak bilhoa holli
eta koloria gorri,
esküko larria churi, zilhar fina üdüri,
eta bera charmagarri best' ororen gaineti.

Etchetto bat badizüt nik
jauregi baten parerik;
hartan barnean egonen zira zilhar kaideran jarririk
ihurk ezpeiteizü erranen nahi eztüzün elherik.

Nik badütüt mila ardi
bortian artzañeki;
kataluñan ehün mando bere zilhar kargeki:
huruk oro badütüketzu, jiten bazira eneki.

Badüzia mila ardi
bortian artzañeki?
kataluñan ehün mando zilhar diharüreki
hurak oro ükhenik ere, eniz jinen zureki.

Maitenaren etchekoak,
kechü ümen ziradeie:
alhaba ene emaztetako sobera ümen zaizie.
Ez emazte. Bai amore: sofritü behar düke.

Senhartako emozie
frantziako errege,
frantzian ezpada ere, españakoa bedere:
bada errege, emperadore, phüntsela ja ez tüke».